

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Eskoziaren txanda

Scottish National Party (SNP) alderdiak Eskoziarako daukan helburua independentzia da. Eskoziako Gobernua bereganatzea lortu zuenean, erreferendum bat antolatu zuen, bere programa politikoa, bere helburuak, lortzeko bidea baitzen hori. Eskoziak ezetz esan zion independentziari, baina, aldi berean, SNPren esku utzi zuen Eskoziaren etorkizuna. 2014. urtean independentziari ezetz esan zion herri berak bozkatu baitu SNP egon diren hauteskunde ezberdinetan. Oilategia otsoaren zaintzapean uztea.

2016an Brexitaren inguruko erreferenduma egin zen. Erresuma Batuan gehiengoak Europar Batasunetik ateratzaren alde bozkatu zuen. Eskozian eta Ipar Irlandan, aldiz, jendartearen gehiengoak Europar Batasunean jarraitzearen alde egin zuen, hau da, Brexitaren kontra. Bazirudien etorkizun horren ezberdinen aldeko hau-tuak ondorioak izan zitzaizkela erresumaren etorkizun batua baita. Eta uste horiek konfirmatu berri dira. Nicola Sturgeonek, Eskoziako lehen ministroak, aurreratu du Eskoziak bigarren independentzia erreferendum bat egingo duela.

2014ko erreferendumean aukera *statu quo*-a vs independentzia izan zen. Gauzak berdin jarraitzea vs aldaketa. Eta edozein aldaketak beti dakar beldurra eta zalantza. Are gehiago, Erresuma Batuak batasunaren alde egin-dako kanpainan behin eta

berriro errepikatu zen independentziak Eskoziak Europar Batasunetik kanpo jarriko zuela automatikoki, eta, aldiz, Erresuma Batua baita jarraitzeak Europar Batasunean jarraitzea ziurtatzen zuela.

Gauzak asko aldatu dira 2014. urteaz geroztik. Nicola Sturgeonek Eskoziaren etorkizunerako bi norabide marraztu ditu orain, Brexita edo independentzia. Aldaketa vs aldaketa. Brexitak ekarriko duen aldaketa vs independentziak ekarriko duen aldaketa. Gainera, oraingo honetan Eskoziak Europar Batasunean jarraitzea ziurta dezakeen aukera bera ere trintxeraz aldatu dela dirudi, independentzia baita egun Eskozian Brexita gelditu dezakeen aukera bakarrenetarikoa.

Bi urteko epean egin nahi du erreferenduma Eskoziako Gobernuak. Bigarren erreferendumerara iristeko bidea hasi da, beraz. Erresuma Batuko Gobernuarekin elkar-rizketa eta negoziazioak hasi beharko ditu Eskoziak lehenik, Erresuma Batuekin adostu behar baitu erreferenduma, bai data, bai galdera, bai balizko erantzunak ere. Erresuma Batuko Gobernuak zailtasunak jarriko ditu eta prozesua atzeratzen saiatuko da, egungo egoera ez baita hoberena bere interesak, hau da, erresumaren batasuna, ziurtatzeko. Hala ere, zaila dirudi bukaeran erreferenduma egitea debekatuko duenik pentsatzea, horrelako erabaki bat ez litzatekeelako ulertuko ez Eskozian ezta Erresuma Batuan ere; are, independentista kopurua handitu dezake.

Eskoziak eta Erresuma Batua ispilu dira guretzat. Kataluniak erreferenduma egitea erabakitzen duen bitartean, bere liderretako asko epaituak eta kondenatuak izango diren bitartean, beste batzuek erbestean jarraituko dute, nazioartean lobby lana egiten. Eta guk Kataluniako

Eskoziak eta Erresuma Batua ispilu dira guretzat. Kataluniako eta Eskoziako egoerek gure prozesua nola suspertu dezaketenean asmatu behar dugu, indarrak sinkronizatu, indartsuagoak izateko

eta Eskoziako egoerek gure prozesua nola suspertu dezaketenean asmatu behar dugu. Gure indarrak Madril eta Bruselara begira sinkronizatu behar ditugu, indartsuagoak izateko, aukera gehiago izateko. Ez da hurbilpen ideologiko soilak. Interes berdintsuak dauzkagu eta elkarrekin aritzeak norbere helburuak lortzea erraztu dezake, horregatik sinkronizatu behar ditugu gure prozesuak ere; bereziki garrantzitsua da hori egitea. Eskoziar independentistak lagundu bai, baina gutxi gorabehera bi urte iraungo dituen Eskoziako bigarren erreferendumerako bidean gure egoera lagunduko duen bide bat marrazten ere asmatu beharko genuke. Hor dago nire ustez bigarren erreferendum horren koska guretzat. •